

FAKIN XOKONA

Oier Goitia Abadia





ataramiñe

EUSKAL ERREPRESALIATU POLITIKOEN
LITERATURA KOADERNOAK

www.literaturakoadernoak.org



EGILEA ETA AZALEKO IRUDIA

Oier Goitia Abadia

Madrid IV (Navalcarnero)
Centro Penitenciario
Carretera N-5, km. 27,7
28.600 Navalcarnero (Madrid)



HITZAURREA ETA EDIZIOA

Mikel Antza

Maison d'arrêt de Lyon-Corbas
40 boulevard des Nations
BP 351
69 962 Corbas Cedex

AZALEKO IRUDIA ETA ILUSTRAZIOAK

Iker Moreno

Atxilotzea: 2011ko Urtarrilaren 18a
Askatzea: 2012ko Uztailaren 26a

www.literaturakoadernoak.org



COPYLEFT

Publikazio hau copyleft erakoa da. Beraz, bere edukiak zabaldu, aipatu eta hitzez hitz kopiatu daitezke, osorik zein zatika, edozein medio erabiliz eta edozein helburu lortzeko, ohar hau mantentzen eta jatorria aipatzen den bitartean.

ISBN: 978-84-940593-1-5

LEGE GORDAILUA. DEPÓSITO LEGAL. DÉPOT LÉGAL
SS-1627-2012

Fakin Xokona

OIER GOITIA ABADIA



ataramiñe

EUSKAL ERREPESALIA TU POLITIKOEN
LITERATURA KOADERNOAK

www.literaturakoadernoak.org

Etxekoeri eta bereziki Sustraitxori

*Grazie mille Strega, senta la tua scopa mai avrei potuto fuggire...
verso i nostri sogni*




ataramiñe

EUSKAL ERREPRESALIATU POLITIKOEN
LITERATURA KOADERNOAK

www.literaturakoadernoak.org

Aurkibidea

Kartzela Oro Da Fakin Xokona, Mikel Antza_____	9
Excusatio Non Petita Acusatio Manifesta_____	16
Dramatis Personae_____	20
Kaiolan Triste Ma Non Troppo_____	26
Interludio Amorooso_____	42
Kaiolan Andante_____	52
Tiro Batzuk Kontzertuaren Erdian_____	65
Pizzicato_____	78
Kaiolan Allegro Ma Non Troppo_____	88
The End_____	102



**Kartzela
Oro Da
Fakin
Xokona**

Fresnes bezalako sarraski espetxe batek alde onik edo abantailarik duela esateak sakrilegio kutsua duen arren, horrela deituko nioke Paris erdialdeko Palais de Justiceen epaituak izateko edo beste kartzela baterako bidean –Fresnes Frantziako iparraldeko kartzeletara destinatzen dituzten presoen banaketa-gunea da, Marseillako Baumettes hegoaldekoena den bezalaldi baterako bertara eramaten dituzten kideek hango egoiliarren egunerokotasunaren ohikeria apurtzeari.

Izan ere, Fresnesen berezitasun horri esker, batzuetan, aspaldian elkar ikusi ez duten kideak elkartzen dira; bestetan, entzutez baizik elkar ezagutzen ez dutenak.

Denbora tarte batez berritasunak kutsatzen du euskal presoek kolektibo txikia: korrikaldi zirkuituko erritmoa aldatzen da, soinketa-gelako ariketak berritzen, promenadarako kaio-lako airea ahots doinu eta kutsu ordura arte ezezagunez egurasten, beste kartzeletako esperientziak, burkideen berriak, guztion ametsa tindatzeko ordura arte ezagutzen ez genituen beste kolore ñabardura batzuk, eztabaidak, sukalde-aholku eta literatur gomendioak, teoriak, utopiak, nekeak, erredurak, kartzela aldiaren eta borrokaldien zauri ikusezinak, borroka grina itoaren etsia, eztabaidak, gertaerak, gora eta hormei begira begi berrien galdera zaharrak, hitzerditan ulertzen diren ametsak.

Fresnesen, gainera, 2011 arte sukaldean egiteko plaka elektrikorik erosteko aukera ez zegoenez, epaitu behar zutenari kartzelak ematen zion, Palaisetik gau-gauean heltzen zenerako hoztuta aurkituko zuen afariko bazka bertan bero zezan.

Berez, bazka irentsi ezina bota eta epaituak kideek prestatutako bolognar erara egindako makarroiak, pizza edo patata arrautzopila berotzen jartzen zuen, eguneko gorabeheren berri leihotik leihora eman bitartean.

Batez ere, plaka elektrikoak olioizko sukaldea ordeztu eta espetxeko RZk baldintza hobetan egiteko aukera ematen zuen. Eta azkar ibiliz gero, epaitua zigorra bizkarrean hartuta lekualdatzen zutenean hari utzitako plaka elektrikoa ezkutuan gordetzekoa. Hara seguruenera epaituak izateko Fresnesera iristean hain suharki errezibitzeko zinezko arrazoi sekretual! Haiek jakin gabe plaka baitzekarten besazpian.

Hartara, 2010eko udaberrian, halabehar polizial eta juridikoak eta Frantziako kartzela administrazioaren erabaki arau ezezagunek elkartu gintuzten Fresneseko 3. Dibisio Hegoaldeko promenadako 4. kaiolatxoan, euskaldunenean, gainaldea sareztaliala duenean, Oier Goitia eta biok. Bera, kartzelatik epaigelarako ibilbidea laburtzeko asmoz, epaiketa aldirako ekarri zuten Meaux-Chauconin-eko Maison d'Arrêt-etik. Hiru urte luze neramatzan ordurako nik Fresnesen.

Elkarrizketa gai ugari izango genituen, baina orain garrantzia duena da halako batean poemak idazten zebilela aipatu zidala. Ez dut oroitzen berak proposatu zidan irakurtzea edo nik eskatu nizkion. Orrialdeak plastiko barruan sartzeko ematen duten klasifikatzaile bat jaitsi zidan hurrengoan patiora. Txukun-txukun inprimatuak zituen poemak Fakin Xokona izenburupean. Denbora pasa, terapia gisa idazten zuela esan zidan. Literatur asmo handirik gabe, lagunei eta kideei oparitzeko, bere barnekoak hitzetan jartzeko.

Epaiketa aurretik Oierrek zigorra jaso eta urte batzuk Centre de Détention batean igarotzeko prestatua zuen burua. Maison d'Arrêt-etako erregimen zorrotza atzean utzi eta Espainiara igor zezaten baino lehen arnasa hartzeko, euro-agindu parean onartua baitzioten, eta Madrilerako bidaia eta Poliziak telebisi-tei hornitutako abioitiko irteeraren irudiak ziurtatuak.

Abokatua fin ibili zen ordea, eta tribunaleko epaileren batek ere eskuharki izaten dutena baino justiziaren zentzu pixka bat gehiago bazuen nonbait eta hara Oierrek eta kideek kalkulatzeko zuten zigorra baino zatiaz txikiagoa bizkarreratu zieten. Hainbestera non Oierrek ongi beteak baitzituen jasotako bost urteak. Beraz, prokuradoreak helegitea jartzeko hamar eguneko epea pasatuz gero Espainiarako hegaldia hartzeko txartela erosiko zioten.

Burua egoera berrira presaka egokitzen hasteaz gain, testamentua ere egin behar izan zuen Oierrek. Izan ere, bost urtean pilatutako gauza gehienak, Espainiako kartzeletan debekatuak edo alferrikakoak, bertan utzi beharko zituen. Morralea arin daramate euskaldun txoriek hegoalderantz:

“hau da testamentue,
bost urtetan pilla(t)u doten guztixe kideentzako! (banatzeko bikodabe notarixoa). Konputagailua *Marseillako Ijitoantzako*, kazuelak atrapatzen dauzenentzako (*Pipi* arin ibilli), radioka eta etxeko zapatillek *Lukaxi*, *Koalantzako* arribantentzako arropak eta geuzek, *Xaxi Prietontzako* dilista pakete eta dekotezen jateko danak, plus bentiladorie. Beste guztixe partxixean einbikozue jokatu!!!!Bibazuek!!!!”

Konputagailua eta edukia oinordetzan jasota “Marseillako Ijitoaren” kontu hori barkatu nion Oierri. Eta gainera, bere poemekin zer edo zer egingo nuela esan nion, denak ez baina ale batzuk bazeudela interesgarriak, nire iritziz zuzenketa eta moldaketarik behar bazuten ere. Fresnesera iritsitakoan zeuzkan poemak biderkatu egin zituen egonaldian, Fakin Xokona II bilduma osatuz.

Eraman zuten Oier.

Orain Navalcarneron daukatela uste dut.

Joan zen urtea agindu nion “idatziko diat!” hura bete gabe. Tartean ni ere Lyon-Corbaser lekualdatu ninduten; ordurako Oierren disko gogorrekarekin indartuta eta aberastuta nire ordenagailua.

Halako batean matxuratu zitzaidan inprimagailua eta berri bat erostekotan nengoela nire gauzen artean beste bat banuela esan zidaten kartzelako informatika arduradunek. Oierrena, noski!

Oierrenak dira ere hau idaztean jantzita ditudan txandaleko galtzak, eta Fresnesen krocketaren oreka zabaltzeko erabiltzen nuen lapikoa ere berea zen, betaurrekoentzako estutxe pareka bezala, galtzontzilo batzuk, ikustaldietarakoan biometria pasatu ostean eskuetan ematen dudana desinfektagarri alkoholdu-na, Aloe Vera krema, udan erabiltzen dudana mahuka gabeko niki beltz marguldua ere berak utzitakoak, eta barne bisitetara jantzita eramaten dudana txiki zeukan izokin koloreko alkan-dora dotorea...

Eta ordenagailuan “Idazkiak” atalean sartu bakoitzean bere izenez izendatutako dosierrean dauden poemak eta ipuinak.

Fakin Xokona. Azkenean, Oierren poemen artean murgildu nintzen. Hautaketa egin nuen, sortzailearen begiak jantzita hautatuak nireganatu nituen, ments neritzen hitzak asmatu nizkien, egiturak kiribilduz batzuetan, bestetan poemak zeuden-zeudenean utziz.

Kartzelako poemak dira Fakin Xokonakoak. Oier Goitiarenak dira. Oinordetzan utzi zizkidan gauzen artean baliotsuenak, arratsalde askotako une zoriontsuak ekarri dizkidanak, aspaldian ez bezala hitzekin jolas egiteko aukera eman baitzidaten, bidaiatzeko proposamenak, amets egiteko.


Egindako lana igorri eta “bere” Fakin Xokonako poemekin egin nuena ikusi zuenean, biok sinatu behar genituela esan zidan Oierrek. Ez nuke arazorik. Hireak dituk orde. Oierrek sortu ez balitu ez nuke nik haiekin jolas egingo. Nireak izan zitezkeen, egia da. Oierrenak dira, baina beste edozein presorenak ere izan zitezkeen, kartzelako errealitateaz ari da eta, preso dagoen gizakiaz, bere min eta ametssez, askatasunean bizitakoaren oihartzunez, askatasuna berreskuratzeko grinaz.

“Preso arruntek
behin eta berriro errepikatzen duten kantua
Fucking Chauconin
(...)
Preso arruntekin guk ere
behin eta berriro errepikatzen dugun
kantua
oihua
abestia
negarra:
Fakin Xokona”

Eta berdin-berdin esan lezake gutako edonork fucking Fresnes, eta fucking Clairvaux, fucking Fleury, fucking La Santé, fucking Corbas eta baita fucking Navalcarnero, fucking Soto, fucking Albolote, fucking Brieva, kartzeletako hormak suntsitu arte!

Lyon-Corbasen, 2012ko irailean

Mikel Antza



Excusatio
Non Petita
Acusatio
Manifesta

2005ko Maiatzaren 27an hasi nintzen bilduma honetako olerkiak idazten, Meaux-ko Chauconin auzoko Centre Pénitentiaire-ko bizipen eta gertakarien egunerokoa edo kronika osatu asmoz. Bertan espetxeratuta gintuzten euskal preso politiko-
on istorio eta burutazioen ispilu izateko, elkarrekin igarotako egunen laburpen gisa, elkarrekin emandako urteak bukatu eta elkarrengandik banantzeko unea heltzen zenean, besapean bakoitzak eramango genuen oroigarri izateko.

Eskerrik handienak inoiz ahaztuko ez ditudan kide eta adiskide minci, besarkadarik beroena hor izateagatik.



Dramatis Personae

ETXEKOAK:

Bi Bizkotxo jubilatua.
Larrabetzuar filosofoa, fontaneru ta lobie
Haizea etxeoak
Kornetiñatarrak
Plaza Soroko neskak
Ritxar Gerrrrr
Dalbator.

Aberel: Eh jou, Eh jou-jou! (gezurra da)

Guest Stars: Fresneseko koadrila (Marseillako ijitoa, Pípi, Lukax, Koala eta Xaxi Prieto)

SOZIALAK :

Ibiza: Beltz saltxeroa

Pakito Bigarreana: Korrika modu berezian

Txerifa: Hitz egin zitekeen berarekin

Piperra: Erretzaile porrokatua

Apaiza(ak): Fanatikoak baina jatorrak

Titi: Txinatar hori hiltzailea?

Karim: kabiliarra

Estif: Ijito maitale hiltzailea

Beñat: Hemen aurkitu dugun euskaldun hau multzo honetan sartzea ez dago ondo

De: ¿Cómo está señor, caballero?

Izaroko Txiki: Osnykoek badakite nor

Gallegoa: Pedofilo zikina

Fiskala: Beste zikin bat


Stefan: Ameriketako gang bateko drogazalea

Izarokoa: Potolo aho-handia
Kurrinki: Kurrink-kurrink, kafea noizbehinka lortzen digun turkiarra
Jasin: Aurrekoaren laguna, mototik erori zena
Magnesio: Honekin dudak oraindik, ia ote den zena, zuloztailea
Kuatro kuatroa, 4x4 edo Batanen: Fartxantea
Izaroko Ianik: Ezagututako zentzuzko pertsona bakarrenetarikoa
Pantuflio: Porfilio venezuelarra
Bolibiar euskalduna: Nikeak erosi zituen
Urrazo Italiarra: Ostia ederra eman zioten
Mañoa: Erabat jota
Katalana: Ionki-tronki eskizofrenikoa
Katalan Ijitoa: Xake-laguna
Txorua: aiztoa jarri zion lepoan matoi bati, tori kamixeta, ole!
Zaragozako katalana: Estos son unos hiiiijos de...
Meme & Mux: Marokiarrak
Jose Veloz: Ibarrako piperrak ipurdian dituen Txikin anaia
Akim: Muskuloak beti muskuloak
Harakina: Egin zuena ezin konta
Monsonuri: Haimar bota txistea
Nardin: Engainatu zigun pedofilo zikina

ERREPRESOREAK:

Basurdea
Azeria
Aloja-Aloja
Pinguinoa
Ardoa

Txindoki
Joselito Bakala
Karatalo
Artuguagix
Sorgiña I
Sorgiña II
Emakumea
Arabiar jefea
Palestinoa
Jatorra
Urtziri banka ebatu ziona
Tontoa
Drijx
Tonto Handia
Gaižtoa
Aitona artzain euskalduna zuena
Euskalduna
Nikola lodi kabroia
Samuel.D.
Handi jatorra
Parloirreko txikia
Marseillesa
Ibizaren laguna
Kaserita
Neska txorua
Potola, Moñoña edo Gizena?
Beltza Sikua
Indignatua
Eskolako tontoena



Kaiolan
Triste
Ma Non
Troppo

Fakin Xokona

Preso arruntek
behin eta berriro errepikatzen duten kantua

Fucking Chauconin

behin eta berriro errepikatzen duten oihua

Fucking Chauconin

leihoan abesten dutenean

Fucking Chauconin

leihoan negarrez daudenean

Fucking Chauconin

Preso arruntekin guk ere
behin eta berriro errepikatzen dugun

kantua

oihua

abestia

negarra:

Fakin Xokona

Promenade

Kaxa barnetik ateratzeko
buru barnean algarak prest,
pasioan ateratzeko
edo zertarako prest
gu

Jira-biran
 euripe
 elurpe
 eguzkitan
 Jira-biran

Buru barnetik ateratzeko
kaxa barnean algarak prest,
pasioan ateratzeko
edo zertarako prest
gu

Jira-biran
 euripe
 elurpe
 eguzkitan
 Jira-biran

Egunero

Patioko Trapezista

Gizon bat zebilen patioan
astiro
jokaldi errepikapenetako irudietako mantsotasun berarekin.

Gizon bat zebilen patioan
zeruari garrasika
Alfred Hitchcock-en *Psicosis* filmetik atera berri.

Gizon bat zebilen patioan
oreka galdua
burdina-saretik eskuak askatu ezinik
beldurtutako trapezista.

Gizon bat zebilen patioan
burutik eginda
Ez ote gintuzten erratuta gu sartu zoroetxean
bururatu zitzaigun une batez.

Peter Un Plomb (zirkuitulabur)

Boom...!
Goizaldea oraindik ilun
Garuneko berunak lehertu zaizkizu,
kolpeka
gauzak jaurtikitzen
oihuka
iraintzen
eman duzu eguna

Ezleku honen azken mirakulu
Ezleku hauen kausa eta ondorio
Atxilo-aldiak pitzadura eragin dizu
Iheserako zirrikitu

Bazaramatzate gugandik
garuneko berunek eragindako zartakoari esker
aldegitea lortu duzu bederen
eguna luzatu diguzun etsipen.

Patioko Trapezista

Gizon bat zebilen patioan
astiro
jokaldi errepikapenetako irudietako mantsotasun berarekin.

Gizon bat zebilen patioan
zeruari garrasika
Alfred Hitchcock-en *Psicosis* filmetik atera berri.

Gizon bat zebilen patioan
oreka galdua
burdina-saretik eskuak askatu ezinik
beldurtutako trapezista.

Gizon bat zebilen patioan
burutik eginda
Ez ote gintuzten erratuta gu sartu zoroetxean
bururatu zitzaigun une batez.

Ate-joka-I (Etsipenaren Mugan)

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

S U R V E I L L A N T (E) !

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

Zulotik Zulora

Badoaz korrika
norbaiten bila
korrika
korrika
norbaiten bila

Urdinezko rotwailer-ak
tropelean
tropelean
norbaiten bila

Smokingdun gizaseme iluna
ardi-buru
artalde tropelean
norbaiten bila.

Atera dute indarrez
burumakur
bortxaz atera
zuloan sartzeko
atzera zuloan sartzeko
atera dute

Deus ez zaren lekuan
Inor ez zaren lekuan
berrogeita bost egunez
izango zaituzte

Hesien atzetik
zelatatuko zaituzte
mespretxuz begiratuko zaituzte
zure buruaz beste egitera
bultzatuko zaituzte
zure buruaz beste egitea
beste irtenbiderik ez dizute utziko
azken segundoan ekiditeko
edo ez
deus ez zaren lekuan
inor ez zarelako

Espetxeko Ordularia

Kartzelazainari zerbait eskatuta
“bi minutu” itxaroteko esaten badizu
ordu erdiko itxaronaldirako prestatu zaitez

“Bost minutu barru” etorriko direla esaten badizute
ordubetez edukiko zaituzte zain

Salle d’attente-an sartuko zaituztela esaten badizute
Etzan lasai banketan kuluxka egitera
luzerako kontua izango da-eta

“gero” erantzuten badizute ordea
galdu esperantza oro
ez dira-eta berriro pasako

Espetxeko ordulariaren orratzak kartzelazainen agindutara
mugitzen dira:

Ordua, lan egiteko gogo eskasaren arabera
Minutuak, izaera putre-kumearen arabera
Segundoak, umore sadikoaren arabera

Ate-joka-II (Tabako Tximuarekin)

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

C I G A R E T T E !

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

Errutina

Goizero

klon-klon tranka- klin-klin giltza-
zarata berdinak beti,
aurpegi larri berdintsuak atalasean
egun on pozoitsu berdinak,
errutina bera
keru bera
narda bera.

Eguerdiro

klin-klin giltza-
zarata berdinak beti,
aurpegi kopetilun berdintsuak atalasean
on egin pozoitsu berdinak,
errutina bera
keru bera
narda bera.

Arratsero
aurpegi zikoitz berdintsuak atalasean
gabon pozoitsu berdinak,
klin-klin giltza- klon-klon tranka-
zarata berdinak beti,
errutina bera
keru bera
narda bera.

Gau-erdiro
Ate itsuan aurpegi berriak aldiro
kantu doinu berriz irriñoz,
amets on alaitsu berdinak opa,
errutina gozo bera
etxeko lurrin bera
maitasun bera
ziegan hedatuz.

Gizaseme Urdina II

Etorri eta begira
orduroko maiztasunez
ateko zulo txo zikin horretatik.

Etorri eta begira
orduroko maiztasunez
kaxa barruan ote gauden dudaz.

Etorri eta begira
orduroko maiztasunez
gure osasunaren kezka aitzakia.

Etorri eta begira
orduroko maiztasunez
gauerdian, animaliak baginalez ate-joka iratzarriz.

Etorri eta begira
orduroko maiztasunez
goizaldean, animaliak baginalez argiarekin iratzarriz.

Etorri eta begira
orduroko maiztasunez
nolako lana den zurea ikustera.

Etorri eta begira
orduroko maiztasunez,
zer nolako gizaseme zaren, gizajo hori.

Etorri, etorri
Begira, begira
Zutik eta harro gaude oraindik.



Interludio Amoroso

Haiku euskal-italiarrak

Amore emanda
noakizu
Amore

Amorez
zatozkit
Amore

Amore
hilko naiz
amorez

Amore
zuga eman dut
amore

Izarapeko

Salbazioa izarapekoan daukagu
hanketako jolasekin,
kitzikatutako gu
kitzikatutako gu

Elkar irristatzen gara
likits itsaskorrean
hankarteko jolasekin,
kitzikatutako gu
kitzikatutako gu

Urik gabeko arrain
hasperenka
itsaspeko ozeanoaren bila
buruz behera
noakizunean

Croissant

Croissant jarri zara
alajaina!

Croissant dituzu bularrak
Zigarro pakete baten truke eskaintzen dizkidazu
oraindik ez dut horrelakorik erretzen
alabaina!

Kruasan jarri zara
alajaina!

Abstraktua erabat
intxaur-kruasana
Zigarrotxo batzuen truke,
zer?

Galbide Zorora

Zora-zora einde
zoratzeko nehikoa
neure galbidie zarie.

Zora-zora einde
zoratzeko nehikoa
neure asegabetasuna zarie.

Zora-zora einde
zoratzeko nehikoa
neure ametsetako gogoia zarie.

Zora-zora einde
zoratzeko nehikoa
denak jateko zauzie.

Zora-zora einde
zoratzeko nehikoa
zu guztiok dastatzeko
neure obsesiñoa zarie.

Begiek Salto Egin Zidaten Eguna

Eta geratu naiz horrela
zauritutako txoria
basa animalia ehizatu berria

Eta geratu naiz horrela
oinetara arte erori zaizkidalako hitzok
oinetatik altxa ezinik tristura

Eta geratu naiz horrela
olatu bat gainetik pasa
eta gorputza umelduta

Eta begiek salto egin didate
salto egin didate
inoiz nabaritu ez dudan histura entzunda
eta geratu naiz horrela.

Haiziak Gona Igotzen Dabenian (Anbotoko Marilyn Monroe)

Eta haiziak gona igotzen dabenian...
zer gertatzen da ba?

Ez bada tximeleten hegoak ateratzen zaizkizula
Ai! Tximeleta harrapatuko banu, ai!
hegaz nengoke jada, hegaz

Ez bada izarren distirak bereganatzen zaituela
Ai! Izarra harrapatuko banu, ai!
han, goian urrun nengoke jada, urrun

Ez bada olagarro besoak ernaltzen zaizkizula
Ai! Olagarroak harrapatuko banindu, ai!
erabat itsatsirik geundeke jada, itsatsirik

Ez bada berdel aurpegia geratzen zaizula
Ai! Berdela arrantzatuko banu, ai!
hasperen-egarriz arnasestuka ase legoke jada, ase

Eta haiziak gona igotzen dabenian...
zer gertatzen da ba?

Hasten dela
tximeleta hegoen kilima,
izar distiraren mozkorra
olagarro besoen laztan lizunak
eta berdel aurpegiarekin amaitzen den...
Ai! Jolas goxoa, ai!

Izerdi Patsetan

Negu bueltan biluzik izarapean
Batak hotza oinetan
Besteak hotza hanketan
Biak daude desesperatuak
biak bata bestearen oinak igurzten
aldamenekoaren hankak ferekatzen

Badator goranzko bidean garra
Badator arineketan lama
Neguko carnauletan mozorrotua udaz
izerdi patsetan urtuko dituen infernu bustiaren bila



Kaiolan Andante

Badator Berrero Txoria

Txoria,
kaiolatik ihes egitea lortu eta
zertarako zatoz ostera burdinartera?
Zertarako erreserbatu zenuen joan-etorriko bidaia?
Irten eta berehala zaude berriro hemen
Migrazio labur honen arrazoiak jakizu!
Txoria

Txoria
hegoak ebaki zizkizuten loaldian
eta txori izateko kaiola behar baduzu
ez da hegazti askerik kanpoan
ez da hegaztirik kanpoan
ez da gehiago hegaztirik inon
txorimaloa

Txorrotxioa

Txio-txioka
habian kabitu ezin
habiatik eroritako
txioa.

Txioka dihardu
amari txioka
negar-txiotan etsita
mamurtu beharrekoiei txioka

Txio-txioka
habian ezin kabitu
kaiolara eroritako
txioa.

Txioka dihardu
gizarteari txiomentuka
barroteak gorroto
askatasun-txio etengabetan

Txio-txioka
txorimaloen beldur
txotxongiloen begiradapeko
txorrotxioa.

Trabes Begiratu Diogulakoan

Harroputza
krisialdiak jota

Toxikomanoa
krisialdiak jota

Zoroa
krisialdiak jota

Nazkagarria
krisialdiak jota.

Gaurkoan
trabes begiratu diogulakoan
guri ordainarazi nahi digu

Gaurkoan
trabes begiratu diogulakoan
guri oihukatzen ari zaigu

Gaurkoan
trabes begiratu diogulakoan
erakutsi digu drogamenpekotasunaren miseria

Aurrerantzean
trabes begiratuko zaitugu guk ere

Aurrerantzean
mesfidatiago izango gaituzu

Aurrerantzean
zoaz popatik hartzera
(aspaldi joana bazinan ere)

Ate-joka-III (Futbol-mania)

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

G O O O O O O O O O O L !

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

Haserre Aldiak

Goizeko hitzetatik
haserre hitzetatik
isiltasun erabateko itzulietara
solasaldi bakartura
biratu du gaurko egunak
baretasuna galduz
jasan ezinezko istant batez
eguneko eztabaida sutuz
okertu zaigu eguerdia
ilunabarra noiz iritsiko zain nago
biharamuneko freskotasunak
amorratzen hasia nau
egurats klaustrofobikoak
eragiten dizkidan hotzikarak
ezin ditut nozitu eta
ezin ditut nozitu eta

Ate-joka-IV (Telemaniakoak)

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

L ' É L E C T R I C I T É !

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

Danba, danba, danba, danba, danba...

Urdaibaiko Lurrina

Zer dela eta dabilkit ihesean usain hura
gorroto nautenen antzean
batetik bestera, ezker eskuin, gora behera
muturretatik erpinetara
sudurzuloan sartzeko beldurrez?

Zer dela eta ez nau maite itsas lurrinak
arnasketa batez
sakon-sakonean bahitzeko
asmoa besterik ez bada nirea?

Nola bizi zu gabe
ur gazi bedeinkatu gabea?

Begiak Zabaldu Arren

Gauero ohean buelta
eta buelta erdi
ezin geldi

Eta goiz-alban erretorika bera
atzera eta aurrera
izarak bere lekuan egokitu ezin.

Gauero ohean buelta
Eta buelta erdi
izara-olatueta murgil

Eta goiz-alban erretorika bera
sumendiek utzitako
magmatik ezin askatu

Gauero ohean buelta
eta buelta erdi
inoren min lorik ezin

Eta goizero egi bera
begiak zabaldu arren
inor ez dagoela ezin ikusi


Parkingean

Fresneseko patioek
Autoak aparkatzeko boxen antza dute
Tamainaz eta itxuraz
Zementuzko hogeita zortzina lauki karratu gris ozituak dibisioko
Soci t  Protectrice des Animaux-eko txakurtegira joan
zertaz ari naizen jakiteko

Lau berlina sartuko lirateke parez pare
(atea hain txikia ez balitz)
bi aurrean
eta beste bi atzean
Corsica Ferrys-en antzera

Euskaldunontzako patioak bereziak dira
sarea dute goialdean
zerura begira
ametsetan ere
ez dezagun ospa egin

Eguzkia apenas sartzen delako
eta hain txiki eta meharrak direlako
ematen digute nonbait aukera
goizez eta arratsaldez
bertan bi orduz egoteko



Tiro
Batzuk
Kontzertuaren
Erdian

70. Urteurrena Egunero (Gernika)

Urteurrena
Ospatzeko ezer gutxi

Hura isiltasuna zerutik zetorrena
oihuka hasi aurretik
negarrez bukatzeko

.....negarrez bukatzeko.

Hura isiltasuna herritik zetorrena
oihuen ondoren
deseginda bukatzeko

.....deseginda bukatzeko.

Ospatzeko ezer gutxi

Ushtrisë të Çlirimtare të Kosovës

Atzo arte Serbiarren menpeko Kosovoko probintzia zenak,
independentzia aldarrikatzera ausartuko zela zioen.

Gaur 15:36tan nazio-estatu berri bat sortu da
hemengo herritar askori lotsa edonondik ateratzeraino.
Gaur Europa zaharrean kosovotarrek beraien estatua sortu dute.

Bihar guri dagokigu xanpain festa, kaleko askatasun zoriontsua.
Etzi AFP etxeko argazkilariari egokituko zaio gure poza
munduan zehar zabaltzea, istant bateko irudia klikatuz.
Etzidamu BBCkoei egokituko zaien bezala albistegia
Independence Day of the Basque Country esaldiarekin zabaltzea.

Zorionak

Ushtrisë të Çlirimtare të Kosovës.

950 Km-tara Deserrian

Irratia piztuta
goizeko seietatik zazpietara
eta arratsaldeko zortzietatik aurrera
herrira hurbiltzeko.

Albistegien menpe
goizeko seietatik zazpietara
eta arratsaldeko zortzietatik aurrera
berrien zain

AM-n laburtzen dugu
goizeko seietatik zazpietara
eta arratsaldeko zortzietatik aurrera
950 kilometroko deserria

Emaiozu Buelta

Buruz behera nabil
Irrati-uhinen gainean.

Hango kontuak
belarrira dakarzkite uhin madarikatuok,
kontu kontari, errealitatetik urrun,
zuengana hurbiltzeko distantzia luzatuz.

Jakinda badakidala,
ilusionismoko egiek,
gezur politek,
esatarien ahots erakargarriez
jantziak daudela.

Ikasi dut esandakoaren
alderantzizkoa ikusten.

Ohitu gaituzte gauzei
buelta ematearen beharraz,
beste erpin batetik begiratzeko
faltsua ote dan baieztatzeko beharraz.

Ohitua naute,
eta orain edozer hartuta ere
buelta ematen diot badaezpada
senak bultzatuta.

Zenbakiei Begira

Egunkarietako hauteskunde bezperako datuei begira nagoela
bururatu zait:

Imajinatu arabiarrek zenbakiak asmatuko ez balituzte!

Imajinatu aritmetikarik gabeko mundu batean biziko bagina!

Zenbaki eta aritmetika gabe
lau gehi hiru, bat litzateke, bakarra.

Ez boto ez hauteskunde
Ez portzentaje ez ekuazio
Ez irabazle ez galtzaile
Ez diru ez iruzur
Ez hautetsi ez lapur
Ezta zenbaki gorririk ere

Zenbat?
Galderak ez luke erantzunik.

P-rik Gabeko Kantua

Ekiñek kotxea hartu du goizalde lainotsu txuri eta beltz batean,
gidabaimena atera berria, bakarrik egin dezake ibilbidea behingoz,
betidanik egin duen ibilbide bera, ibilaldi amaiezin eta luzea,
bat nazionalean sartuta helmugaraino jaurtikitzen duena.

Eman nahi zion sorpresa hura, inoren laguntzarik gabe emango dio gaurkoan.
Ehunka herri igaroko ditu, ehunka herri igaro ditu,
Ehunka herri ezagun hasieran eta milaka anonimo ondoren,
buruz dakizki denak, alfabetoaren letren antzera eta abesten hasi da orduan:
a, b, d, e, f, g, h, i, j, k, l, m, n, o, ... isiltasuna, eta ... r, s, t, u, w, x, y, z.

Txikitan ikasi zituen denak buruz, amaren altzoan zihoanean,
Txikitan ikasi zituen denak buruz, amaren ondoan zihoanean,
eta orain gidabaimena baduela, bidetik ez galtzeko balio dio,
alfabetoaren antzera, buruz dakizkielako denak,
horregatik kotxean GPS-a martxan jartzearen alferrikakotasuna,
instintuak helmugaraino eramaten duelako
instintuak helmugaraino eramango duelako
eta abesten jarraitu du:

a, b, d, e, f, g, h, i, j, k, l, m, n, o, ... isiltasuna, eta ... r, s, t, u, w, x, y, z.

Ekiñek p letra beti ahazten du.

P letra beti trabatzen zaio mingainean. Zaila egiten zaio berau ahoskatzea, mikatzegia delako bere memorian halako hizkia gordetzea, p letrak sufriarazten du, maitaleek maitatua abandonatzean, sufritzen duten pareko.

Min ematen dio p letrak.

Ahal izango balu aspaldi zukeen ezabatua hizki hori bere lengoaiatik, hain urduri jartzen duen letra hori, p madarikazio guztien letra, eta abesten jarraitu du:

a, b, d, e, f, g, h, i, j, k, l, m, n, o, ... isiltasuna, eta ... r, s, t, u, w, x, y, z.

Azkenean heldu da, P -ra, heldu da azkenean.

P -ri alboan zenbaki errromatar bat ezarri diote orain, hiru P daudela esateko, hiru direla P beldurgarriak jakinarazteko.

Ekiñek ilaran dagoela hainbat erkidek sentitutako hotzikara berdina sentitu du, eta telefonoa atera eta amari deitu dio onik dagoela arazorik gabe egin duela eta egingo duela atzera bidaia ere, esateko, ez dela galdu, lasai egoteko buruz dakielako bidea eta bueltan ere lasai egoteko, eta abestia abestu dio amari:

a, b, d, e, f, g, h, i, j, k, l, m, n, o, ... isiltasuna, eta ... r, s, t, u, w, x, y, z.

Ordu bete barru deituko zaitut esanez moztu du deia,
aizkoraren zorrotzasunez, bat-batean,
mugikorra poltsan sartu behar izan du.
Ordua delako. Ordua da.

Orduan lasai doa *P.III*-ren burdinazko barruko hesi sarrera atera,
“lasai nago” errepikatzen bere baitan,
ez daki non entzun dituen hitzok, baina beti errepikatzen du esaldi bera,
eta lasaitzeko abesten hasi da berriro:

a, b, d, e, f, g, h, i, j, k, l, m, n, o, ... isiltasuna, eta ... r, s, t, u, w, x, y, z.

Suitzako erlojuen puntualitate berarekin,
atera da Ekiñe *P*-tik, ordubete pasa ondoren.
Ordubete delako ordua. Ordua da.

Ezin daiteke esan sartu bezala atera denik, ez, ez delako horrela,
Ekiñe neska txikia izan arren, neska txikia delako,
familiarren tamainako, arbasoen pareko,
handitua atera da, orain erraldoi bat dirudielako,
aurpegiaren irudikatzen zaion irribarrea hain da handia,
non bi metro dituela dirudien.

Mugikorra atera du berriro, ezpataren azkartasunaz eta ama deitu du,
irribarrea alderik alde duela bueltan badatorrela esateko, lasai egoteko,
“ni lasai nago” bere baitarako diola,
buel tako bidean dator dagoeneko abesten:

a, b, d, e, f, g, h, i, j, k, l, m, n, o, ... isiltasuna, eta ... r, s, t, u, w, x, y, z.

Azkenean lortu du amaren altzoan zihoanetik bueltaka zuen sorpresa.
Arazorik gabe egingo du bueltako bidaia, Ekiñe handitu delako,
ez delako galduko *p* letra bezala, ez da galduko,
horregatik lasai dauka ama, alabak buruz dakielako bidea
eta bueltan ere lasai egoteko abestia abestu diolako;

a, b, d, e, f, g, h, i, j, k, l, m, n, o, ... isiltasuna, eta ... r, s, t, u, w, x, y, z.

Ixo Oilarra!

Frantziarren oilar kantuak isilarazteko

Mikelen kantuaz iratzartzen naiz
Benitorenekin gosaltzen dut
Keparen soinuaz bazkaria prestatzen nabil
Erramunekin lokartzen naiz
eta Lourdesekin lo,
Peio gabeko Pantxoa baten bila.

Anjel, ikastolatik, jada txikitako laguna
atzetik daramagu urte luzez kantuan
gurekin daramagu edonora
gurekin dago gatibu.

Frantziarren oilar kantuak isilarazteko

Ruper eta bere poema abestuen
atzerriko indarrez
antzeko daudenak
gogora dakarzkigu.

Frantziar oilar kantuak isilarazteko

Badabil nonbait norbait:
La Cantineriiiiiiiiiiiiita...

Gure herria atzerriak ezaba ez dezan
beharrezko kantu-lagunak ditugu
Mikel, Benito, Kepa, Erramun,
Lourdes, Peio, Pantxito, Anjelito,
Ruperta eta Pakito...

Mitard

Sartu
gela txiki ilun
(kaxa erraldoi) batean
jarri harrizko aulki laukia
zementuzko mahaia
txapazko harraska/komun-zuloa
ohe txiki bat
dena zoruari lotuta

Sartu
liburu,
orri,
gutun-azal,
zigilu
eta idazteko bic-arekin

Sartu bertan
eta proba
hainbat erkideek bizi dutena

Cour d'Assises-ko Malkoak **(san sebastiandar, sagarrazutar eta goitiatarrei)**

Malkoak
zuen begietatik
gugana
arrapaladan

Sikatutako basamortuak
itsaso bihurtzeko
adina zirimiri
erori da Parisko Tribunal de Grand Instance-an.

Ez dira negar
Ez dira zorigaitz
Ez dira tristurazko malko

Harrotasunezko
Begirunezko
Maitasunezko baizik

Gaurkoan
malko goxo horietatik
edango dut soilik
ez baitut inon eta inoiz
halako ur gardenik dastatuko



Pizzicato

Herri Morfina

Litekeena da jendartearentzako
morfina izatea oraina
morfina izatea etorkizuna
morfina izatea salbazioa
egiak ezkutatzeko lo behar gaituztelako
min egiten digun errealitateak
oparitutako ostikadak leuntzeko asmoz
muturrekoen ubeldurak ezerezteko
sofa goxoetan etzanda
xiringa begi-ninietatik barrena
hurrengo dosiaren zain gaituzte
begiekin irentsitako zakar poltsa
buruan barrena irristatzeko prest
mezua ikasi dugula ziurtatzeko

Tiraderak Zabalik

Kopeta barren-barrean
tiradera ugari zabalik
(badira ere gutxi batzuk itxita oraindik)

Zabalik diraute batzuk
ixteko beharrezko den ausardiaren faltan

Itxita dirautenak zabalitzea ezinezkoa da
(Ikeako teknikariari deituta ere)
Inoiz ez irekitzeko zigilatu zituztelako

Kopeta barren-barrean
zabalik dirauten tiradera batzuk
ixteko ordua heldu da
beste batzuk zabalduko badira
bat zarratu bezain pronto
beste bat irekitzen delako
galdera berri bat
bizi-aukera berri bat
barruan dutela

Artez!

Hainbestetan

“Artez!” esaten zuenak
azkenean makurtuta bukatu zuen.

–Artez! –oihukatu zion
botilan kortxoa sartzeko behar den indar
eta estutasun berberaz.

–Artez! –berriro
Fort Apachekeko basurde orlegi oldartuak.

–Artez! –xuxurlatu
edadearen poderioz entzumena herdoildua zuen
aitona bati hitz egiten bailegoen

–Artez! –errepikatu zuen, errepikatu zuen, errepikatu zuen...

–Artez! –bota zuen ahotik
eta telefono gida batek lez kolpatu zion buruan, hitzak.

–Artez!, mekabendio! –builaka
amesgaizto bateko hitzak bailiran.

–Artez eta itxi begiak! –aurpegia ubeldu zion
burdin hotza buruan izozten zuela nabaritzeko laztan leunaz.

–*Pum!* –entzun zuen bat-batean
sasietatik gugana korrika zetorren zarata.

–*Pum!* –jasandako umilazioetatik askatzeko
emandako soinua zen

–*Pum!* –berriro ere, berriro ere, berriro ere...

–*Pum!* –izan zen
ito berri batek arnasa berriro hartuko balu sentiaraziz
handik goitik, artez zegoenak entzun zuena.

–*Pum!* –izan zen
artez egotera behartzen zigutenek
entzun zuten azkenekoa–.

Hainbestetan esaten ziguten “Artez!”
azkenean makurtuta bukatzeko.

Koka-kola Lakoa

Halakoa gure laguntasuna:

gasik gabekoa

gasik gabeko koka-kola lakoa

Inork edaten eta edan nahi ez duena

Harreman gaseoso

Leku zarratu batean giltzapetu ezkerro ihes egiten duena

Behin irekitzea nahikoa du betirako desagertzeko

Halakoa da gure laguntasuna:

gasik gabeko Koka-kola lakoa

gasik gabekoa

gasik

gas

psssffff

Mutu

Isiltasuna
Duzun onena

Hiztun porrokatua izanda ere
ahoa zabaldu gabe
perretxiko aurpegi horrek
azalarazten dizu
zurikeria

Bejondeizula.
Zaren bezalakoa izateagatik
Isiltasuna duzulako onena
Hiztun porrokatua izanda ere
Mutu
zure aurpegia mintzo delako mihiaren ordez

Beharrezko Bidai (Bidai Anonimoa II)

Batzuetan
trenean zoazela
gauzarik ederrena
geltokira heltzea izaten da

Bestetan
trenean zoazela
gauzarik dramatikoena
passport please entzuterakoan
segur aski geltokira
inoiz ez zarela helduko jakitea izaten da


Al Dente Maite Zituelako Spaghettiak

Via Garibaldi gabeko herririk
ez dagoen herrialde honetako
hiri xarmadun hartako
Garibaldi kalean
alokatutako apartamentu sekretuan
burutu zituen ikasketak

Makarroiрик gabeko haurtzaro galduan
jadanik bazekien
bertoko hizkuntza
guztiok maite ditugulako
spaghettiak «*al dente*»

Garibaldi etorbideekin
beti gurutzatzen den
Gramsci etorbidean
kaputxinoa gosaltzen du goizero
iragan gorriko kameleoiak

Bertakoen elkartasuna du
kaputxinoaren bitsa
muturrean itsatsita
egunsenti gorriari begira
inork erreparatzen ez dion
kameleoi arrotzak



**Kaiolan
Allegro
Ma Non
Troppo**

Bat Joan Hirugarrena Etortzeko

Zaharra alde
eta barria agertu
hiru gatibu berrero
hiru kide hiru anaia bihurturik,
mahatsen ordez mahats-pasak
ardoaren ordez hartzitutako mostoa
bildotsaren ordez espagetiak
etxean ordez patioan bertsoan
leihoan txintxina
leihoan irrintzia
hiru biderrez

Zapatuetako Laguna

Badut lagun bat
bizitzaren konplotaz hausnartzeko
atzeko aldeak begiztatzeko
teoria aldrebesen maisu

Zapatuetan soilik
ikus dezaket lagun hori
Zapatuetan soilik
teorien elkartruketa

Zapatuen zain egoten naiz
gizartearen papera zein den antzemateko
norberak bizitzan duen rolaren berri izan
eta nolako gizarteak daukagun asmatzeko

Lagun horren konspirazioen beharrez nago
bere halabeharrezko hamar urtetako kalbarioa sentitu,
gainditu dugun iraganaz,
konpondu nahi dugun orainaz,
asmatu nahi dugun etorkizunaz
zapatuetan baino ez dezaket hitz egin

Zakurrez Ere Hitz Egiten Dugu

Pekindarra edo alemana
zakurra beti zakur!
Chihuahua edo Chow-chowa
zakurra beti zakur!
Eskoziar artzain edo artzain euskalduna
zakurra beti zakur!
Dalmaziarra edo canichea
zakurra beti zakur!
Setterra edo bulldoga
zakurra beti zakur!
San Bernardo edo Bernardo zena
zakurra beti zakur!
Daniar handia edo mastin espainiarra
zakurra beti zakur!

Zakurrak beti zakurtuak
nik ordea gaur pizza jango dut
apustua irabazi dut eta

Paseoan Ateratzen Nautenean

Paseoan ateratzen nautenean
bi metro karratutako espazioan
bizitzaren abiadura dakusat

Paseoan ateratzen nautenean
zure bila nabil,
makurtuta
okertuta
leihoko zulotik
zu ikusteko antsietatez.

Paseoan ateratzen nautenean
autobideko kotxeak soilik
hautematen ditut,
joan etorriko ordu t'erdian.

Paseoan ateratzen nautenean
«Parigi» zeharkatzen,
zu aurkitu besterik ez dut buruan.

Paseoan ateratzen nautenean
makurtuta
okertuta
leihoko zulotik
oinetakoak ikusten ditut,
orkatilak
gidailak
belaunera arte

Hamaika pare artean
zailki identifikatu zaitut
zure oinetakoak
zure orkatilak
zure gidailak
zure belaunak
eta hortik aurrera
nik janzten zaitut
eta horrekin eta horrela bada ere
nahikoa dut.

Paseoan ateratzen nautenean
Kaleak eta hiribideak ezagutzen ditut,
hainbestetan zapaldutako espaloiak,
ni nembileneko garaietan gogoratzen zaitut.

Paseoan ateratzen nintzenean
zenbatetan ikusten nuen kamioi argi-urdina,
zenbatetan imajinatu ezinik
hor zeramatela
bi metro karratutan estu
Euskal Herriko zati bat eskuburdinaz,
oinetakoei begiak kendu ezinik,
askatasuna inguruan eta hain hurbil
agian hitzordura nindoan nire bila
nire oinetakoak ezagutu
eta hortik gora jantziz

Paseoan ateratzen nautenean
Nire oinetakoak aurkituko ditudan esperantzaz
makurtuta
okertuta
leihoko zuloatik
begiratzen dut
korrika egiteko ohartarazteko nire burua
atzean ditudala
harrapatuko nautela bestela.

Buda Ere Tronpatzen Da

Buda etorri zait goizeko hitzordura
meditazio ihesean
(euskal herritar bat
kaptatu asmoz ote?)

Buda etorri zait goizean
hitzordua iluntzean zuenean
(Buda ere tronpatzen da)

Buda etorri zait
«Buddhattitude» izeneko helikopteroan
lau ziega aurrerago zuenean lurrartze gunea
(Buda ere tronpatzen da)

Buda
ez nintzen ni mahai gainean
deika ari zitzaizuna!
Baina hemendik ateratzen banauzu
banoa zurekin!

3. Solairutik

Lekuz aldatu gaituzte
eta 3. solairura igo
3. eta azken solairura
leihotik, barroteei iskin eginez, begiratzuz
leihotik, burdin sareari ere iskin eginez, begiratzuz
zelaia horiz janzteko zorian dakusagu
departamentuko errepidea dakusagu
nazionala dakusagu
eta autopista ere dakusagu
eta ortzi-mugan, lurrak zeruarekin bat egiten duen gunean
etxeak igartzen ditugu

Lekuz aldatu gaituzte
eta 3. solairura igo
3. eta azken solairura
eta atzo traktore bat ikusi genuen
atzera eta aurrera
bai traktore bat ikusi genuela diotsuet
begiak igurtzi genituen
eta han zegoen traktorea
ez zen ispilatzea
golderik gabeko traktorea
komandante nekazariak gidatutako traktore hegalduna
(ondo entzun duzue hegoak zituen, hegazkinek bezala)
Lur-hartzen edo aireratzen, ez nago ziur,
zelaia produktu kimikoz erregadiatzen ziharduen.

Traktore hegaldun horrek,
eguna aldatu zigun erabat
erabat alaitu zigun eguna
zuek ez dakizue zenbat denbora daramagun traktore hegaldun bat ikusi gabe.

Abantaila hori du azken solairu honek
egunero izaten dugu ezusteko txikiren bat
lehen ez bezala
orain egunero dugu zerbait
murrua, barroteak, burdin sarea eta txarrantxa ez den zerbait
ikusteko aukera
departamentuko errepideko autoak ez badira, nazionalekoak
eta bestela mutur aurrean dugun autopistakoak, koltza zelaian zehar
gau eta egun
harantz eta honantz.

Hara!
Aibala, ai-ba-la, ai-ba-la,
Ikusi al dok?
Oraintxe, hor doan kamioi handi horren
atoi orlegi ilunean
hizki zuritan *Olano*
ez al dio bada?
Euskal herritarra ote da kamioilaria?

Atoi orlegi ilun hizki zuridun kamioi euskalduna
maiz pasatzen dela ohartu gara
eta gu deseatzten gaude
umeak lez
bozina gogor jo dezan
gu leihoan gauden bakoitzean
leihoetatik ikurrinak ateratzeko.

Gaurko batzarreko erabakia izan da
kamioilari jaunarentzako honoko mezua zabaltzea:
Jakizu eta orain badakizu,
*Frantziako 77. departamenduko Meauxko Chauconin auzoan
badirela biru ume
zuek bozina noiz joko zain.*
Kamioi baten bozina zaratak
eguna aldatu diezagukeelako erabat
kamioi baten bozinak
eguna alaitu diezagukeelako erabat
zuek ez dakizue-eta zenbat denbora daramagun
kamioi euskaldunen bozinak entzun gabe.

Bixer eztoztie hamen topeko!

Zer bero dau!
Hau beroa hau!

Egun osoa, gau eta egun izerditzen,
labe baten barruen bizitzera kondenata
eta hau soportatzerik eztau,
eztau haizerik eztau.

Zer bero dau!
Hau beroa hau!

Eguzkie lepo atzien pegeute
barne oreka galduten dot
barne ezinegona

Zer bero dau!
Hau beroa hau!

Aguanteu ezin dogun beroa
hezurretaraino doie gerizpien bille,
hotzaren utopiaz, izotzagaz ametsetan
apurke-apurke urtuten ari naz,
horrela zirrikituetatik eingot eskapo gabaz
horrela zilloetatik eroriko naz
eta urtzen nazenerako ez banaz desintegrau
bixer eztoztie hamen topeko



The End

C'est Fini, Questo è Finito, Akabo da: Kabroiek!

Azken-azken azkenekoa da,
hola bapatien, etorri iat barrixe

Azken-azken azkenekoa da,
hola atoan, estraditatuko nautela San Joanetara be heldu ez nazela

Azken-azken azkenekoa da,
hola *Fakin Xokona*-tik *Fakin Frexnex*-era
eta azkenian *Fakin Sotoderreal*-en bukatzeko

Azken-azken azkenekoa da,
hola globalizazioaren ondorioz,
eurentzako merkantzia bat nazelako naramate abioien

Azken-azken azkenekoa da,
hola tis-taus batien, Txan magoak be eztekon azkartasunez,
idazteko gailurik gabe utziko naute

Azken-azken azkenekoa da,
hola juengo naz hamendik,
dekotezen gauze guztixetatik, bigaz, zu hemen itzitze

Azken-azken azkenekoa da,
hola noie,
ezindotela esprimidu gorputz honek barruen dekon zumo guztixe

Azken-azken azkenekoa da,
hola sartu nintzan moduen noie,
praka eta kantzontxillo garbixekaz, baie radixo multibanda bategaz

Azken-azken azkenekoa da,
hola juengo naz,
abiottik jeisteko arropak dekotezela elejidute,
esateko gero ezkarela bape zaintzen

Azken-azken azkenekoa da,
hau da testamentue,
bost urtetan pilla(t)u doten guztixe kideentzako! (banatzeko bikodabe notarixoa): Konputagailua *Marseillako Ijitoantzako*, kazuelak atrapatzen dauzenentzako (*Pipi* arin ibilli), radioka eta etxeko zapatillek *Lukaxi*, *Koalantzako* arribantentzako arropak eta geuzek, *Xaxi Prietontzako* dilista paketie eta dekotezen jateko danak, plus bentiladorie. Beste guztixe partxixean einbikozue jokatu!!!!Biba zuek!!!!

Azken-azken azkenekoa da,
hola akaboko da eguneroko hau,
agur esaten be *gabaxo-azeitunnek* eztoztiela itzi,
kabroiiiiiiiiieeeeekkkkkkkkkk



ataramiñe

EUSKAL ERREPRESALIATU POLITIKOEN
LITERATURA KOADERNOAK

www.literaturakoadernoak.org

ataramiñe formatu txikian

El silencio del infierno

Fernando Alonso

2003

Gosea lagun, laguna

Segapoto kolektiboa

2004

Lunaren Goiztiri

Juan Luis Mugertza

2005

Claude Gueux

Victor Hugo (itzulpena: Zorion Zamakola)

2007

Kartzelako neurriak

Urtzi Zubizarreta

2008

Bakarmortuko kronikak

Mikel Antza

2011

Ametsen txokoan bizi baiz

Ibon Muñoa

2011

Sasian Barna

Xabier Makazaga

2012

Fakin Xokona

Oier Goitia Abadia

2012



Oier Goitia Abadia

1974

Gernika

“Preso arruntek
behin eta berriro errepikatzen duten kantua
Fucking Chauconin
behin eta berriro errepikatzen duten oihua
Fucking Chauconin
leihoan abesten dutenean
Fucking Chauconin
leihoan negarrez daudenean
Fucking Chauconin
Preso arruntekin guk ere
behin eta berriro errepikatzen dugun
kantua
oihua
abestia
negarra:
Fakin Xokona”

Kartzela oro da Fakin Xokona, baina preso bakoitzak bizi du bere kartzela.
Hona Oier Goitiak sentitutako malkoen katedrala, garratz bezain gozoa.



ataramiñe

www.literaturakoadernoak.org